

Feliziana Arenaza Lasagabaster
Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1916-2014)

Aurkibidea

Biografia



Txikiñekue baserrian jaioa (Areantza elizatean, Aretxabaleta), eta gerora Matiku baserrira bizitzera joandakoa (Aozaratza elizatea). Aita Txikiñekue baserrikoa zuen eta ama Itturralde baserrikoa. Baserrian eta tabernan lan egindako emakumea. Elkarriketa egin zitzaionean, 86 urte zituen.

Zintak

ARE-003

- **Proiektua:** Leintz bailarako ahozko ondarea

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Data**: 2002-01-01
- **Iraupena**: 75 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa

ARE-004

- **Proiektua**: Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Data**: 2002-01-01
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Gerra zibila hasi zeneko eguna

- **Erref**: ARE-003/001
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerra Zibila. Abertzaleak. 18-19 urte inguru zituen berak orduan. Gari-ebaten zeudela jaso zuten abisua. Otxandio aldean tiroak entzuten zituzten.

Transkripzioa

- Gerra kontuek edo, gerriek urten auenien akordetan zara?

- Bai, [akordetan] naz zela urten auen. [...] gerriek urten auenien, ba, nazionalistiek eta gorriek esaten gontsen guk. Besteik ino bez. Horretxek. Ta gero nazionalistak faten zien, ba, [komitiek] esaten eben zala ta gero, ba, guardiak eitten, guardiak eitten-ta, [eitten] faten zien horra zerera. Zela esaten otsen horri? Iturri gorri edo esaten dotse, ba, hor badao, ba, Araotz aldien edo hor? Hara faten zien. Horra faten zien. Han arabarrak, ba, haik [...]. Han soldauak. Soldauak eukin ha [ta hau] gorriek. Soldauak Vittorixen, ta hor batzen zien.

- Nun ziñan zu orduan?

- Ni etxien, [hementxe] baserrixen.

- [...]

- Hemen ziñan orduan, ez? Oindiok etxian zeunden...

- Bai, hemeretzi edo hamazortzi urte edo [ez dakit zer] neukin ta gerriek urten auenien. Bai. Gu gari-ebaten gabitzen orduantxe. Urten auen juliuen hamazortzixen. Gu gari-ebaten ta ez gauen pentsaten... "Gerriak urten dabela" ta Otxandio aldien tiruek zien. Entzuten gittun, baiño...

- A! entzun eitten zien, e?

- Bai, entzuten zien. Holaxen. Ta gero Vittorixara-ta be ezin fan; trena be zertu zan. Holaxe jentiek.

- Ta soldauak sartu zienien be...

- Soldauek sartu zienien... soldauak sartu zien setienbrien. Bai. Soldauek sartu zienien, ba, goitik behera etorri zien danok tiroka "tou-tou-tou-tou", ta hemendik [...]. Hemen ez zeuken zerik, muniziñok edo zerik eta hemenguek danak igesi fan zien zerera, Bilbo aldera. Ta gero Bilbo aldera fan zienien, han alto edo ein zebeu ta, ba, orduen frente eitten [edo fan zien]. Tiruek [orduen...zittuen]. Ta gero... Hola ibili zien. Ta hola egon zien, ba, zerera arte, negu guztien egon. Ta handik Galartza aldetik edo handik... Galartza aldien gorrixek egon zien ta hemen bestiek. Negu guztien egon zien. Ta gero ni zerera, kriada fan nitzen, ta gero nik frentie ez nauen ikusi, baiña soldauek sartu zienien, ikusi nittuen zela sartu zien. Ta, ba, holaxe jentie. Gero, negu guztien egon zien. Handik tiruak eitten zittuen ta, ba, mutil bat, hamen gure auzokue, fabrikan lanian abillela hil zan, Luis. Ba, lanien fabrikan abillela, handik Galartza aldetik tiro jaurti ta azertau ta mutilla garbi [ein eben]. Ta, ba, holaxe [eitten] zittuen. Hor [Mantso] aldien be bai besten batzuk holaxe hil zittuen ta [...]. Ta gero, [frentie ekin zebeuen], orduen gogor. Baiña, bestela, nazionalistok hemendik Bilbo aldera fan zien, ba, [...] barik. Ez zeken muniziñorik eta ezebez, [...] barik fan zien. Ta gero handik [ezin zebeu] ta atzera frente eitten ekin zien hona. Holaxen.

2. Gerra kontuak

- **Erref:** ARE-003/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Frontea. Jatekorik ez. Ihes egiten zutenei garia kentzen zieten.

Transkripzioa

- Orduen, hemen nazionalistok eta gero Galartzan...
- Bai, bai. Galartza aldien gorrixek [egon zien]. Bai, esaten euen, bai. Handik, Urkiola aldetik, etorri zien. Gero, jana be ez auen, gero dana gastau zan... Artien be ekarten auen zerbait baiña gero atzera abanzia fan zanian, gero atzera janik ez zan egon. Garixek eta, ba, baserrixen garixe [joten, ekarten] zan, baiña gero maietza alleaten zanerako be errotak zarrau eitten zittuen eta, ba, baserrixen geuk be [sekretako] holako makinilla txiki bat zertu ta, ba, hareaz jo garixe. Ta, ba, baserrixen ogixe-ta eitten gittuen. Ta holaxe. Holaxe zan orduko gauzak.
- Baserrixen, behintzat, zer jana egongo zan, ez?
- Bai, baserrixen zer jana bai, baiña entregau ein biher izeten zan [garixe].
- Entregau zenbat eitten zan?
- Ba, [esaten ebena], zela toketan zan; baserrixek zelakue zan. Haixe. [Holaxe...]. Ta gero, gorrixek zerera fateko, azkenengo egunetan larri [ebitzenien] Bizkaira fateko, baserriar [asko] garixa kendu otsen. Asko automobilaz etorri, [...eitten auen] kamiñue akabau barrixe ta, ba, garixek be eruen euen Bizkaia aldera. Larrixe jentiek. Ha txarra zan gerrie. "Buuu", barriro ez deilla etorri gerraik.

3. Errazionamenduaren nondik norakoak

- **Erref:** ARE-003/003
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

lhes egin zutenak. Errazionamendua: azukrea; olio. Errazionamendu kartila familiako. 3 urte inguruan bizi izan ziren horrela. Tabernatan ere ez zen ogirik egoten.

Transkripzioa

- Zeure etxeiko edo fan zan...
- Ez, ez.
- ...gerrara?
- Soldau ibili zien, baiñe ez zan iñor [hil].
- Baiña tokau xaten soldau fatia, ezta?
- Bai, soldau fatia.
- Alde be ingo eben batenbatzuk, ezta?
- E?
- Alde be...
- Bai, alde be askok. [Igesi ein auen]. Beste asko fan zan, ba, asko karlistak zienak Vittorixara pasau zien rekete. Holaxe, ahal dan moduen jentie.
- Ta gero gerra ostien rasionamentua ta eitten zan...
- Gero rasionamentuek. Ta gero, ba, enee... Azukarra ta dana rasionau... kafe ta, hola, apurtxo bat emoten auen ta... Azukarra holako bal-bal-baltza ta zatarra ta... Olixue be gusto bat txarraokue...! [Ze jan...]. Ta basarrixen txarrixa hiltten auen. Bat hiltteko [seketan] auen; besteik hiltteko ez auen emuten zerik. Ta, ba, baserrixan defendiduten zan. Kalien txarto. Dirue eukitte be ezin topau janik. Bai.
- Nun erosirik ez zan egongo...
- Nun erosirik ez, [...] falta.
- Ta rasionamenturako kartillak izeten zien, ezta?
- Kartillatxo batzuk emuten [oskun].
- Pertsonako bat ala familixa...
- Familixako. Famelixako. Ta rasionamentue... Batzuetan etorten zan hillebetera edo, ta hurrengo gutxiaora iguel ta, badakitzu?
- Rasionamentuoi... Holaxe.
- Ta etxian zenbat lagun izan, hainbeste tokau?
- Bai, tokau eitten zan hainbeste. Gurien ez auen fumadoreik edo zerik, baiña kartillak euken fumadorientzako be. Bai, tabakuentzako be. Bai. Baiñe fumadoriak ez zienak be kartillia baeuken ta [beraik] hartu eitten auen, ta fumadoriek hartzen auen kartillioi ta ekartzen eben.
- Zenbat denpora iraun eben horrek?
- Horrek? Hiru urte uste dot aguentau auela. Gero, ba, gerrioi akabau zanien, gero handik laister, ogi zurixori ta argittu zan ta jentie pozik. Baiña orduen jentie kalien ta [mutillek eta, ba, zerien ezer ez], ta etxetik artue iguel eruten eben [han, merixendan] kalien jateko. Ez zan egoten ogirik eta, kalien! Tabernetan be ez zan egoten ogirik, [horixe esan] arren. [...] falta.

4. Errotak itxita

- **Erref:** ARE-003/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errotak itxita, baina isilean lan egiten zuten. Astean behin egiten zen labeko-sua.

Transkripzioa

- Garixe eukiagatik errotak zerrautu edo ze izeten zan?
- Bai, errotak zerraute, baiñe jentiek eitten euen zelabait. Etxeko makinillakin edo zelabait baserrittarrak eitten euen. Hemen artue-ta zerraute ta hemendik [Aratzera] faten zan jentia [Aratzen] errotie, ta han artue jo eitten euen, ta gabez hara fan errotara.
- Orduan, errotak isilixan be lan eitten euen?
- Bai, bai, bai. Arantzazutik be, gerrie akabau ta gero, etorten zien garixekin udazkenien hona. Ta hona etorten zan, ba, Arrasateko zera, panaderuek zien, ta harek eruten zittun ta urune ekarten otsen. Zeretik, e! Arantzazutik eta [Urzolatik] eta etortzen zien. Artien han errotie zerraute. Holakotxe bihelekuek egoten zien.
- Orduan, bide-sailla errotara fateko be...
- Bai. Eta gero, ba, [... jentie].
- Zuek hemen errotara nora faten zitzen?
- Gu? [Boliñatera]. Baiña, ba, gero, denporie alleaten zanien, zerrau eitten auen. Ta aurrez arduria hartuta euki biher [...]. Horrek gerra-ostien, e! Baiña gerra-ostien be txarto egoten zan jentie.
- Baiña uruna einda be, ba, bueno, tarte bat... Esan gura dot...
- Uruna [luzaro eukitzeko ez da jare], baiña, behintzat, gordeta eukitzen zan paraje sikuen ta hiru-lau zakuatik eta... Holaxe.
- Aldiko zenbat eruten zan errotara?
- Errotara? Ba, noberak gure euena, errotie euenien. Bai. Euki ezkeru... Baiña ha gastau eitten zan, ta...
- Ta, askotan, astian behin baiño gehixaotan fan bihar?
- Ez, ez, ez. Astian baserrixan eitten zan, ba, laba-sua aste baterako eitten zan. Zapatuen edo ein ta hurrengo zapatara arte edo [ixe]. Oingo moduen ogi biguna ez zan jaten, e! Baiña basarriko ogixe ondo egoten zan.
- Zenbat ogi lez?
- Dozena bat edo gehixao eitten zien ogixek. Ta kalien [batez]. Razionamentue emuten zan, ta artue lakotxe halakotxe bollotxo bana emoten [otsen] kalien. Dana arto [...] ta ogixe. Oso ogi txarra emoten otsen kalien. Gaiñera, holakotxe bat: bollo txiki-txikitxo bat, [bollotxo] bana.
- Orduan, kaleko jentie baserrittara etorriko zan eske, ala?
- Baserrittara eske etorten zan, baiña baserrixan be zenbat emuten [eben]? Baserrixan be nahikua lan etxerako!

5. Gerran bizitakoak

- **Erref:** ARE-003/005

- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Kaleko jendea baserrietara joaten zen jatekoa eskatzera. Garia neurtzeko ontziak. Etxearen errenta ere anegaka ordaintzen zen.

Transkripzioa

- Orduan, kaleko jentie baserriarrera etorriko zan eske, ala?
- Baserriarrera eske etorten zan, baiña baserrixan be zenbat emuten [eben]? Baserrixan be nahikua lan etxerako! Artien [...] gosie pasau biher. Danien, basarrixan be bai, ta danien. Bueno, basarrixen gosie ez, baiña behintzat zerik ez. Baserrixan be egoten zan, ba, esnie ta arrautzia be bazan ta, ba, patatie bazan ta danak, baiñe biher dan gauzaik ez. Olixue eta holakuek [...] falta. Ez zan egoten.
- Ta entregau zertzuk eitten zien garittik aparte?
- Garixe ta aparte, ta esnie be bai eruten gauen aiuntamenture. Egunien, ez dakit zenbana izeten zan, kuartillo bana ala ez dakit. [Ha] ifini ta baserriko etxe guztietakuak [pillatu] ta gero [marmittakada] bat [egoten zan] astien batek edo. Kalekuek [hartzen euen].
- Garixa neurtu... ze neurri egoten ziran? Neurrixak... Ontzi batzuk ez zeozen garixa neurri eitteko?
- A! Kuartie, anegie ta anega-erdixe [esaten zan]. Anega-erdixe [izeten zan]. Horixe.
- Bai, hola, ontzi batzuk dakot ikusitta...
- Bai.
- Imiñia edo...
- Bai. Hola, orduen horrek, zerak egoten zien asko, ba, erreteruek [...] anegaka etxien errentia [pagau]. Anegaka, edo hola esaten eben batzuk. Batzuk hogeia anega pagau biher errentia ta, ba, hola izeten zan. Etxia euren ez auenak... Guk geurie geuken ta.
- A! Zuen be... erreterero ziñien zuek be?
- Gurie ez zan erreterue.
- A! Ez? Zeuena zeuena zan...
- Anegaka pagau biher izeten zan. Bai. Hemen Oñeti... Zu Oñetierra [...] Oñetierrak askok auken hemen baserrixek, e? Bai. Oin danak dauke erositte, baiñe Oñetin... Oñeti aberatsa zan. Aberatsa edo, behintzet, erreteruek edo [ipini etxiek] edo...

6. Bidegintza

- **Erref:** ARE-003/007
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bidea, gerra hasi baino 2 urte lehenago egin zen. Neguan, bide oso txarrak egoten ziren. Oinetakoak aldatzeko tokiak.

Transkripzioa

- Ta bidie nos ein zan hemen?
- E?
- Bide nos ein?
- Bidie... Hau kamiñuau? Hau kamiñuau ein zan, ba, gerrie urten aurreko urtien edo. Urte bi aurretik edo holaxe ein zan. Hori dana pikatxoiekin ein auen, e! Enee... Orduen, dana. Makiñekin-ta Oñatiko bat ["Upain"] ibili zan eze hemen-- "Upain" esaten otsen. Ha ibili zan. Ha zan kontratistie, Oñatikue. Hak in auen. Ta gero kanbion bat be hak ibili auen. Kanbion bat ibili zan hemen bakarrik harrixekin ta [iragaten] kanteratik.
- Lana gogorra, orduan? Eskuz...
- Bai. Oñatikue zan txoferra be, Juanito edo euen. Ta gero ez dakit Marbellara fan zala edo ez dakit ze esaten eben.
- Denporalia biherko zan eitten...
- Bai. Baiña bastante aguro ein zan, e! Bai. Dana [hemengotxe] baserrittar mutillak-eta ibili zien.
- A! Auzolan estilora edo?
- Ez, ez, ez. Bestela. Jornaleruek, zerak, kontratistiek. Kontratistie Oñatikue zan, [Zelaia], ez dakit zela esaten otsen.
- Bai entzunda [...]
- [...]
- Ta bideik ez zanien nundik ziher ibiltten zitzien kalerako-ta?
- Ba, bidie euen.
- Bidie?
- Bidie. Ba, orduen automobilla ibiltteko, ez zauen automobillik be; baiña bestela burdixekin ta jentie, idixekin-ta faten zan. Bidie hortixik euen.
- Ta ze ein euen, zabaldu edo...?
- Bai, zabaldu, zabaldu. Ta lehen erripakin ta zerekin zan, baiña, ba, gero... [kurba...] hemen.
- Oiñez ibiltteko...?
- Oiñez ibiltteko horrek sendak. Beste senda...
- Sendak egongo zien...
- Sendetatik sartzen gitzien.
- Bai, esan [zeuen], baiñuetxetik buelta edo, ezta?
- Baita, handik baiñuetxetik bueltan sartzen gitzien. Bai. Ta, ba, beste auzokuek, ba, bidiek euen, guk geuken leetxe, ba, handik. Orduen egoten [ziela] neguen lokatzarak. Udan ez, baiña lokatzarak han neguen. Bai, bide txarrak. Baiñe udan ez.
- Siku euenian hobeto...
- Bai, siku euenian...
- Oñetakuek aldaketako ta?
- Oñetakuek-eta aldaketako-ta [... gittuen] hor behealdien aldaketan gittuen, ta aide.
- Zerian, ezta? Hor... Nun [esan zeuen]?
- Hor baiñuetxe ondoko... etxetxo bat euen, ta hantxe eskiñan aldatu ta aide!
- Txabolan bat edo [ze zan]...?
- Ez, etxie zan; bizi zien [...], bizi zien. Ta ate onduen [...] aldaketan gittuen, ta denpora ona auenien, barrez, ez; ez gittuen aldaketan, etxetik faten gitzen oiñetakuekin. Eurixe zanien edo holan.
- Oin beste erropa aldaketako be ez zan [egongo]...

- Ez, ez, ez. Orduen... orduen ez zan egoten horrenbeste zer.
 - Han, baiñuetxie ezautu [zeuen] zuk ondio martxan euela, ala?
 - Martxan auela... Orduen, ni akordetan naz eskolara faten gitzenien, [...] be egoten zien, baiñe udan bat edo bi egoten zien bakarrik. Gaiñera, gure amak-eta esaten eben, ba, zela egoten zan han jentie ta ez dakit zenbat kriada-ta egoten ziela ta... Baiña ni gutxi akordaten naz. Gero, zerrau ta gero, ba, eurek familixakuek egoten zien han, han bizitten zien. Bai.
 - Familixan batena zan hori?
 - Bai, familixa batena zan. Zerekuek, Elorrixokuek edo zien izetetz, baiña eurenak zien horrek danok, terrenuok eta zerak. Ointxe saldu edo zertu dittue, ta oin ein dittue fabrikak eta...

7. Trenaren garrantzia

- **Erref:** ARE-003/008
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:24:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Trena. Ama umea zela, trenbidea nola egiten zuten ikusi zuen. Felizianaren garaian ordea, kendu egin zuten. Langileak Arrasatera trenean joaten ziren.</p>

Transkripzioa

- Jentiek etortiai itxi otsanien. Zuk ezautu [zeuenerako] gutxi etorten zien, ezta?
 - Nik ezautu nauenerako, ba, gutxi etortzen zien, e! Bat edo bi edo hiru edo [...] holan etortzen zien.
 - Baiña etorten zienak luzaroko... Hola...
 - Ba, luzaroko edo bai...
 - Bueno...
 - Ni ez naz akordetan, baiña. Ta han behien euen zera, [ondie] edo han beheratxuao, ezta? Hola, etxe bat. Ta han egoten zien, ba, jaten ta gehixao, ni [...] nitzanerako]. Han udan egoten zien, ba, dozenan bat edo gehixao igual egoten zien. Ta gero, bi kriada edo eukitzen zittuen han udan. Baiñe baiñuetxia ni [...] ordurako zertuta euen, hiru-laun bat jente, hola, juten zien bakarrik. Orduen ez zan ikusten automobilik-eta be. Ez, ez, ez.
 - Etorten zienak, automobilian?
 - A! Nik ez dakit zela etortzen zien. Trenien!
 - A! Trena...
 - Trena euen orduen. Trenien. Bai.
 - Trena... zuk ifini zanienez autu [zauen] ala zu...?
 - Ez, ez, ni akordau orduko ifinita euen trenoi. Nire amak esaten euen, bera gaztie zala, gaztiau, ba, neskatilla gaztie zala, [...] zala, trenbidie eitten orduaintxe eibili ziela. Eskoriatzakue zan nire ama. Ta eurenien egon ziela baserrixen, ba, enkargau edo aintzen [zerak], eta bere aitziek zela eruten otsen, goxetan haik lehenao juaten ziela obreruena ainketan edo zerien, ta armozue eruten otsela bere aitziek. [Ta han gora], han goixen ibiltzen ziela igual lanien, han lana nun toketan zan, ta han juaten zala.

Nire ama zanien, ama neskatillatxue zanien ifini euela hori zerori. Ta ibili ziela eitten; denpora asko tardau euela eitten. Bai. Gure ama bizi izen balitz oin eukiko zittuen ehun ta hogein bat urte edo holakon bat izengo zittuen, edo gehixao iguel. Bai. Ta orduen hori trenbidioi eitten ibili ziela.

- Zure akuerduan kendu ein zan, ezta?

- Nere akorduen kendu ein zan.

- Jenteik ez zabilhelako edo...?

- [Ez dakit]. [... artien be] ibiltten zan, baiñe nik ez dakit zeatik kendu euen. Orduntxe [ekin] zan jentie, ba... baiña artien be zenbat automobil abillen, ba? Oingo... oin beste [...] behintzat! Trenoi kendu zanien, guk pena hartu gauen. Baiña... Vittorixara ta Donostiara ta danerako euen. Obreruek Mondraura lanera be hortik faten zien goxien zazpi t´erdixetarako. Zazpi t´erdixetan egoten zan Vittorixatik etortzen zan trena. Ta gero atzera illunkaran be seiretan edo eukitten euen gorako. Bai. Goxien, ba, beherakue egoten zan zazpi t´erdixetan; atzera gorakue Mondrauen kruzetan [euen], gorakue egoten zan. Ta beherakue [faten] zan zereraíño, Maltzaraiño. Ta gero atzera hamarretan etorten zan gora trena. Hamarretakue, ha Vittorixara faten zan. Bai. Ta gero ha etorten zan hamarretan... hamabixetan etortzen zan [ha] behera.

- Goguen daukotzu ondio, e?

- Bai. Horrek bai, horrek goguen [...].

- Zeu be sarri ibilittakue igual izengo zara...

- Bai. [...], hantxe fan biher izeten gendun guk.

8. Trenaren garrantzia

- **Erref:** ARE-003/009
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:24:17. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Merkantzia trena.

Transkripzioa

- Han jentie ala, hola, generue ta be ibiltten zan? Edo jentie bakarrik edo... trenien.

- Generue ta dana.

- Dana, e?

- Bai. Zerien, ordu bixetan... Bai. Ordu bixetan euen merkanzia. Bai. Merkanzia zanian, hak ekarten zittuen. Ta goxien be merkanzia egoten zan. Ganauek-eta Vittorixara-ta, [iguel] karanzeruek erosten zittuen, ta, ba, hantxe trenien eruten zittuen, goxeko trenien. Trenien; besteik ez auen ta. Orduen ez auen eze, kanbionik eta ezebe.

- Orduen goxetan tren bat merkanzia?

- Bai. Peskie be hamabixetako tren... Ez. Hamarretako trenien Donostittik etorten zan. Kajan bat edo ekarten eben, e! Baiñe hantxe, hamarretako trenien. Peskie-ta be.

- Asko erabiltten zan tren hori!

- Bai, bai. Trena asko euen. Goxien zazpi t´erdixek inguruen, gero hamarretan, ta hamabixetan be egoten zan, ta atsaldien lauretan be bai... [Hak orduak auken], ta jentiek [danak ekixan].

- Orduak errespetau eitten zittuen? Garaiz ibiltten zan ala...?

- E?
- Orduak ondo errespetaitten [zien]?
- Bai, bai, ondo. Ondo errespetatzen zittuen, bai. Bai. Ondo ibiltten zan. Ta gero, luzero [ibiltzen] zan... Eibar... Gero ipini zan Eibar-Vitoria. Ha zortzi t´erdixetan. Zortzi t´erdietan ala bederatzietan? Etortzen zan Eibartik, Eibar-Vitoria esaten jakon. Ha etortzen zan goxien, ba, bederatzietan edo, ta atsaldien bost eta erdixetan etorten zan. Hor, bi autobus. [Hareaz ibiltten] zan jentie, Vittorixara oiena, ta, ba, asko, ba... Orduak euen, bai? Ta Vittorixara oienak eta danak jakitien ze ordutan [dazen egoten zien].
- Ta gero kendu ta kitto.
- Bai, gero danak kendu ta kitto!

9. Ur-gabezia

- **Erref:** ARE-003/011
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:26:51. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garai batean ur falta handia. Etxeetan urrik ez.

Transkripzioa

- Hau kunbuau be zure akuerdian in zan, ezta?
- Puf! Hori bai! Hori, zenbat urte da, ba? Hogeta bost-sei urte?
- [Orain] da orduan...
- Hori in aurretik uraz txarto ebillen jentia.
- Bai, e?
- Bai.
- Ur faltia euen hemen, e?
- Bai, [...] falta.
- Etxietan urrik ez?
- Etxietarako ez. Ure baeuen egon, e! Baiña nik ez dakit, urtute edo biher dan moduen zertu ez. [...] Mendiolaik euen ure orduen.
- Mendiola ze euen, depositon bat edo...?
- Bai, ur asko euen, e!
- A! Bai?
- Bai. Depositto haundixe euen hortxe ta, ba, gero... Baiña eskas ibiltzen zien, e, urekin! Ta gero hau ifiñi euen, ta oin ondo. Bete-bete eindda edarto dao oin!
- Baiña lehen etxietara ez euen urrik, ezta?
- Ke ba!
- Zure akuerdian karriuan ibiliko ziñein...
- Bai! [...] gordeta [...] edo zerak [...] -ta, ba, hantxe. Hartu barreñoian ta hantxe garbittu. Bai. Ta etxien, ba, pozaderie ta ona guauken, baiña etxien holako txikixak-eta garbiketaz gittuen. Pozaderan ondo, baiña... Ure abundante ez behintzat! Bai. Eurixa asko eitten baeuen, ba, ondo.
- Bueno, neguan ez zan faltarik egongo, ala?
- Ez, ez neguan ez zan faltaik egoten.
- Udia izango zango zan hor...
- Udie, bai.

10. Garbitasuna

- **Erref:** ARE-003/012
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:32:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa zuria garbitzeko, "pujetie" egiten zen. Arropa urdina, jabonatu eta jo. Lixiba nola egiten zen. Sutako hautsa; ur beroa; e.a. Arropak usain ona izateko, ereinotza botatzen zitzaion. Zenbatero garbitzen zen arropa.

Transkripzioa

- Koloretako erropie ta erropa zurixe diferente garbiketan da, ezta?
- A! Bai. Bai, bai, bai. Erropa zurixe, ba, pujetie eitten zan, ta han garbittu. Ha egosi eitten zan ondo. Azule, barriz, ba, bestela; jabonau ta jo, ta garbittu. Ba, hor [azen] arbelgak, pozuek, ta, ba, zertu ta [harrixan jotzen], ta ederto garbiketan zan erropie. Bai. Oin baiño hobetua´ jaso eitten jakon orduen erropiai, ta ondo garbiketan zan. Bai. Oin labadoratan, baiña [...] ez.
- Orduan, erropa zurixa garbiketiek lan haundixaue euken?
- Bai. Erropa zurixe garbiketiek lan... Ondo garbiketan zan orduen erropa zurixe. Oingo aldien ondo kaso eitten jakon!
- Zela zan hori?
- Ze ein biher izeten zan?
- Jabonau, ta gero ifini; gabonau ta, ba, [...] zera ifini. Ta gero, gaiñien ipintten jakon trapu bat sendue, hauts-trapue esaten jakon. Han suteko hautsa botaten jakon gaiñera, eta gero aldiko apurtxo bat, aldiko apurtxo bat, ur epela botaten jakon. Ta gero, gerua´ beruao, gerua´ beruao, gerua´ beruaue, ta erropia egosi eitten zan. Ta hurrengoko goxien jo eitten zan etarata, ta epel-epela egoten zan. Ta jo ta erropie zuri-zurixa urteten euen.
- Epela egoten zan hurrengo goizian, e?
- Bai, epel-epela. [Ya tiñakada] zer haundi baten egoten zan. Epel-epela.
- Orduan, ura oso berua bota biherko [...].
- Bai, ba, berua azkenerako. Azkenerako, gerua´ beruao, gerua´ beruao, gerua´ beruao... egosi eitten zan.
- Ta ura beroketako be denporia biherko zan!
- Bai, [egunero] egoten zan-ta kaldara haundi baten berotute; lehenengo epelaue, gero beruaue... Horixe.
- Beheko sutan?
- Bai.
- Ta hari hautsei beste ezer botaten jakon?
- Ez, ez jakon botaten.
- Useiñe edo...
- A! Bai, zera, holako bedar usein gozo batzuk botaten jakuen, ta useiña botaten euen gero edarra.
- Zein bedar? Zein bedar esan dozu?
- Ba, eraiñotza ta horrek. Ur beruekin botaten jakon gaiñera [...] eta ondo [sekatzen] zan.
- Ta jabonau, ze jaboizaten zan lehen?
- Txinbo ta Lagarto. Jaboizak onak, [...].
- Horrek erosi ingo zian, ezta?

- Bai, horrek erosi, erosi. Lehenau be gauza onak egoten zien, e! [...]
gauzak...

- Ta gero, bueno, lehen erropak banan-banan garbittuko zien...?

- Bai, banan-banan garbiketan zien danak.

- Ta oin hortarako pazientziarik ez...

- Bai. Oin, oster, labadoran sartu ta, ba, bertan garbittu [deittiela] ondo.

- Ta oin besteko sarri be ez, ezta?

- Ez, orduen ez. Orduen hamabostien behin edo hola garbiketan zien. Zera eitten zan, pujetie, zurixek ondo.

- Erropa azulak sarrixao?

- E?

- Erropa azulak sarrixao?

- Bai, erropa azulek astien-astien. Bai. Soin-erropie gehixao, ta izerak, ba... zortzixen edo, ba, holaxe garbiketan zien, zortzi edo bederatz... Bai.

11. Urtegia

- **Erref:** ARE-003/013
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:32:30. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Urkuluko urtegia egin zenean, baserri asko galdu ziren. Ingurua asko aldatu zen. Kanean lana, fabrikan.

Transkripzioa

- Hemen pantanue in zanian, hor etxe asko geratuko zien urpien...

- Bai, hemen auzuen zenbat geratu zien? Bat, bi... hemen auzuen be lau, hemen be geratu zien. Koruetan, barriz, zenbat? [Korue, ...], lau, xei... zortzi-edo Koruetan.

- Dezente...

- Bai.

- Asko kanbixauko zan inguruoi...

- Bai.

- Lur onak izan biher hor, gaiñera, ezta?

- Bai, bazien, bazien.

- Lau-laue...

- Bai.

- Laue izengo zan hori... Hor jentiek penie hartuko euen galanta, ezta?

- Penie, bai. Bai. Orduen, ba, badakitzu, baiña, ba... Oin, ba, samurraue. Gaztie-eta oin baserritik ez [zauen] zerik eta... Oin holako baserrixetatik ez dao bizimoduik, e! Oin...

- Baiña orduan bai...

- Orduen bai, ordun bai. Orduen ganauek-eta asko ta...

- Orduan baserrixan jente gehixao biziko zan kalia baiña, ezta?

- Ez, kalien gehixao.

- A! Kalien gehixao? Bai?

- Bai, ordureko bai.

- Ordurako bai?

- Ordureko kalie [ketan] ekindde euen, e!

- A, bai, e?
 - Bai.
 - Baiña horrek jentiorrek terrenuek-eta be biher, ezta? Lanerako eta...
 - Bai. Bai, ba!
 - Ezebe barik geratu zien...
 - Bai, ezebe barik. Oin, barriz, baserrixen lan [...] hor dao, ba, ta zerien, ta, gaiñera, ez dao oin baserrittik ezebez.
 - Baiña orduan kalia ez euan lanik, ezta?
 - Kalien?
 - Bai.
 - Hori in zanien?
 - Bai, garai hartan, hori da.
 - Bai, kalien ordureko lana asko euen, e!
 - A, bai? Ordureko fabrikak indda euezen?
 - Bai, bai, ordureko ekindde euezen zerori, Mondrauko...
 - Kooperatibia.
 - ... kopperatibioi-ta. Bai. Ordureko kalie be [bizketan] ekindde euen, e!
 - Eta lana eskeiñi xaten, ezta, kalia? Ala...?
 - Kalien lana, bai, fabrikan. Ta oin jubilau die, ta, ba, oin jubilaziñuekin, ba...
 - Bai, ba. Baiña hola danai bertan behera [isteia] gogorra, norberan etxie [isteia]...
 - Bai, orduen pena, baiña oin etorri dan munduko zererako ez euan bizimoduik fabrikiaz, edo... zeraz, baserrixaz. Ze saso'...!

12. Eskolara neguan

- **Erref:** ARE-003/014
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Eskolara neguan joaten ziren. Eguraldi ona zegoenean, baserrian lagundu behar izaten zen. Maisuak. Adin desberdinetako umeak batera joaten ziren.

Transkripzioa

- Baiña hor be asko kanbixau da kontua...
 - Bai, oin... enee! Pentsau be ez!
 - Lehenao ze eskola euen, ba?
 - Ez, oin, barriz, enee...! Lehen eskolara neguen faten zan, ta neguen... udan ahaztu atzera dana!
 - Neguen ikesittakua...
 - Bai, bai. Ba, horixe ondo. Gaiñera, orduen denpora ona baeuen edo zerien, "Ittaurran in bihar dozu gaur". Ittaurran in biher, idixen aurrien. Oin, barriz, ez dao holakoik.
 - Ha, gaiñera, zuzen ibili biher, ezta?
 - Bai, ba! Ganauek bestela oker faten zien iguel ta!
 - Ta ittaurran umiek izaten zien jeneralian?
 - E?
 - Beti umiek ibiltten zien ittaurran?
 - Bai, ba! Nor ibiliko zan, ba? Nausixek bestela eukitten euen lana!

- Ta eskolie auzuen eukatzuen edo...?

- Ez, ez. Ni zortzi urtekin ekin nitzen eskolara, hemen. Maistro bat etorri zan, [holako] aragones zer bat [...]. Gero, interino egon zan, urte bi edo in zittun ta gero, ba, beste leku batera fan zan. Gero atzera beste bat be etorri zan, ta, ba, holaxen. Ta, ba, gero, Atxabaltara mojetara. Mojak [eozen]. [...] Oñetira fan zien, hemen zerik, lanik edo zerik ez edo... mojak be gutxi ta... T han ibili gitzen mojetan atzera. Ta holaxe.

- Neska ta mutil danok batera hemen?

- Bai.

- Batera?

- Bai, danok.

- Edade diferenteko jentia...

- Bai! Batzuk lau urte gehixao be iguel, beste batzuk txikixauek... Holaxe.

- Ta danok iguala ikasten?

- Bai. [Liburu bat danok] zertu ta gero haundixauek [beste...]. Holaxe ibiltzen gitzen.

- [Nahiz ta egunero fan ez ezkerro, ba]... formal jarraitu ezik...

- Bai. Ta gero, barriz, ba, gero hemen maistrak-eta egon zien. Ta gero [...] zan] eskolie ta gero [hamengorik ez gendun] ta, ba, kalera. Holaxen.

- Ume pillotxue juntauko zitzen igual...

- Gure denporan bai. Larriñokuek, Koruetakuek ta Azatzakuek ta Arientzakuek. Lau auzotakuek. Asko. Neguen-ta, holan, denpora txarrakin-ta, holan haunditxuauek be etorten zien ta enee! Berrogetakak iguel egoten gitzen hor. Ta maistro batek ze erakustiko euen, ba? Bai, ba. Ezin [...].

- [Haik] danak gobernetan...

- Bai, ba! Bai, ba.

- Errekreora-ta [etaraten giñun], jolaserako pilla galantak!

- Eskandalu ederra!

- Bai. Ta gero neguen-ta, denpora txarrakin-ta, haunditxuauek be etorri itten zien. Badakitzu...

- Etxian lana gutxiketan zanien...

- Bai. Uda aldera gutxiao.

13. Umetako jolasak

- **Erref:** ARE-003/015
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Auzokoak ibiltzen ziren karta-jokoan. Mojetara joaten zirenean, sokasaltoan egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Jolasak esan dozu ta, zetan jolas itten zabien, edo?

- Zetan jolas itten gauen?

- Bai.

- "Potezarka" ta.

- Zela da hori?

- Potia itxi bai, eta bat “potezar” egoten zan eta bestiek gorde. Ta hak kontauta zittuen, ta bai, ba, haik topetan. Ta gero, ba, haik topetan [ez...] itten baeuen, atzera berak fan biher atzera kontetan.

- Ze itten baeuen?

- Bai, ba, kontau ein biher, ba, bestiok gorde itten zien atzera ta.

- Baiña noiz kontau bihar izaten zan berriz?

- Ba, ha potia botaten baeuen, ba, atzera bera atzera be “potezar”, potiori [zaintzen], ta bestiok gorde itten zien ta, holaxen!

- Ta potia bota, gordetakuak itten auen?

- Bai, ba, bestioi “potezar” [...], ha zain [...] atzera be bera bestiok topetan. Halaxen! Oingo zerik ez auen orduen, enee... Ta gero “Onbideka”. Bata gorde-gordeka, gorde, eta bestiak topetan, ta batzuk gehixao diela [...]... ba, holaxe.

- Zela esan dozu hori?

- “Onbideka” ta esaten gotsen. Bata [torrien] geldiketan zan eta, ba, bestiak ebaketan. Ta harek ebaketan otsena, ba, hara fan bihar. Ta gero ha lotuta, ebatuta euela, katiatuta [etortzen] zan ta bestiak, libre ebitzenak, hari “onbide” ein ta libreten bauen, ba, libre! Ta atzera be heltzen fan biher bestiak eta... Holaxen. Oingo antzeko jolasik ez zan itten orduan. Orduen holaxe.

- Zeuek asmatuak.

- Bai, hantxe... Gaiñera, konforme ibiltten gitzen, e! Lanik ez [euenien, han] jolas itteko, kuadrillan... Domeketan [...] jokuen ta. Orduen auzuen auzokuak ibiltten gitzen jokuan, bai.

- Jokuan zer, kartetan?

- Bai, kartetan.

- Ze jokutan?

- Hogeta hamaikan ta zazpi t´erdixan ta... bai.

- Neskatilla ta mutiko nahasi?

- Nahasi, nahasi. Nahasi be, auzuan... 9 auzoko auzua zan guria eta hemen gehitxuao ta, ba, auzuan auzokuak. Orduen, mezetara fan goxien ta, ba, gero zertu, ta gero atsaldien errosarixua emuten euen abadiak lauretan edo, ta, ba, errosarixotara faten gitzen, ta gero jolasien illundu arte.

- Beste jolasen bat goguan dakotzu ala, hola...?

- Ez.

- Oin halakorik ezta itten ta.

- Ez, holakorik...

- Soka-saltuan ta ingo zan, ba.

- Bai, soka-saltoka bai! Bai, oin [harein] monjetara faten gitzenian, soka-saltoka kamiñuan itten geben, ta ez zan pasetan ez automobil bat eta iñobez. 12xetan urten ta bazkaitten gauen ta gero ordu bixak arte jolasian. Ezta automobil bat be ez. 12xetan trenbidetik pasetan zan trena, ta akabo, bai.

14. Neskame Donostiara

- **Erref:** ARE-003/017
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:48:48. **Bukatu:** 00:51:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Neskame joandakoa Donostiara. Oñatira ere neska asko joaten ziren neskame; aberats asko zeuden.

Transkripzioa

- Zu zeu be kanpuen ibilittakue zara krieda...
- Bai, neu be [...] kriada ta...
- Baserrin baten ala...?
- Ez, baserrixen ez! Ez, ez.
- Kale-etxen baten?
- Bai, Donostien ta...
- A! Donostien?
- Etxeko lanak itten edo...?
- Bai, etxeko lanak itten.
- ...ume zain ala zela?
- Donzella, etxeko lanak itten. Ordun aberatsak diru gutxikin ondo bizi zien. Diru asko... Orduen, ni krieda egon nitzen lekuen be, ba, lau kriada-edo han egon gitzen ta hiru edo lau [azen] bakarrik baiña holaxe zan. Dana orduen eskuetan ein biher izeten zan [...], erropie be eskuetan garbittu ta... Bai, bai. Ez auen oingo moduko adelantuik eta! Bai. Holaxe.
- Eta fan zitzen gazteik fan zitzen?
- Kriada?
- Ez, ez. Ni gerra-denporan, gerra [...] fan nitzen ta, ba, gero, atzera gerrie akabau baiña lehen etxera ekarri [ninduen] ta, ba, holaxen.
- Zer zan hobia, hango lana ala baserrikua?
- Ba! Baserrixen gustora faten nitzen! Etxien...
- Etxien gustora...
- Bai, ba! [...] beste libertade bat egoten zan ta. Bai.
- Han iñon mendian...
- Bai. Lanien [han] in biher izaten zan. Oñetin be makiña bat egoten zan ordun kriaui, aberats asko euen Oñetin be. Hemendik neska asko faten zien Oñetira krieda. Bai. Oñetin aberats asko euen!
- Bai, egongo zan, kalia-edo igual...
- Bai, kalien. Bateko medikuek eta besteko ez dakit zertzuk eta... aberats asko.

15. Inguruko herriekin harremana

- **Erref:** ARE-003/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:51:15. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Aretxabaletara joateko joera zerbait erosi behar zenean. Oñatira ere joaten ziren. Antzina, Arabara ere joaten zen kontrabandoan, ardoa ekartzera.

Transkripzioa

- Hemendik Oñetirako-eta joera haundixa euki dozue, ezta?
- Bai, hemetik, hortik, pantano zeretik [pasatzen] zan. [Ordubetegarrengo] Oñetira sartzen zan hemendik, e!

- A, bai, e?

- Bai, bai.

- Oiñez esan gura dozu...

- Biheko! Basotik! [...] Bai.

- Baiña gauzak erosi-ta in biher zienien Atxabaltara beti...

- Bai, Atxabaltara edo...

- Oñetira ez...

- Mondraure edo... Atxabaltan baiño [zer] gehixao[...] zien ta...

- Ta Oñatirako zetarako... hori joerioi zetarako zan Oñatira? Zetara faten ziñien?

- Ba, jentie faten zan gauzak erosi edo [zerbait] zer gure dauenien edo... Bai.

- [...] Arabara be lehenao hola...

- Arabara lehenao esaten [zeuen] ardautara faten ziela. Hori be esaten daue. Ta gero han mikelete-etxie edo ez zan, ba, egoten goixan? Zera egoten zan... mikeletiek zainketan auen. Ta jentie, ba... kontrabandue esaten euen ta, ba, jentie [...] zala esaten euen hamen.

- Zeuk ezautu zeuen hola ibiltten zan iñor ala?

- Ez. Banakan bat bai entzunda, bai, handik ekarten euela ardaue ta bestie, baiña... nire denporan...

- Zu baiño lehenaoko kontuek...

- Lehenaoko kontuek die horrek, lehenaokuek. Bai.

- Ta ardaurik ezin zan ekarri orduan ala?

- E?

- Ardaurik ezin ekarri Arabatik edo...?

- Ez, kontrabandue zan, ba. Ta orduen Arabatik ekarri ezkerro, kalera etortzen bada, aiuntamentuen pagau in biher izeten zan. Aiuntamentuen han alhondigia edo esaten otsen ta handik, han egoten zan ardaue, ta handik [...] herrireko. Oin zerak egoten dien moduen, [...] biher zerak, deretxuek.

- Klaro, etxera ekarri gura bazan, pagau...

- Bai, deretxuek pagau bihar. Ba, oin pagetan dien moduen gauzak pagau in biher. Orduen be herrireko zerbait pagau in biher izeten zan. Oin be deretxuek pagau in biher izeten dou, bai? Ta orduen be bai.

- Baitta...

16. Mikeleteak

- **Erref:** ARE-003/019
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Mikeleteak; Guardia Zibilak. Aguazilak.

Transkripzioa

- Bueno, kontrabandorik ez, baiña mikeletiak eurak zuk ezautu zittuen.

- A, bai! Gerra-denporara artien mikeletiak egoten zien! Mikeletiak [...] mikeletiek, ta gero guardia zibillak egoten zien, ba, beste... Aretxabaletan ez zan egoten guardia zibillik; zerien, gerra aurretixuen ekarri zittuen guardia zibillak Aretxabaletara, baiña aurretik azen Eskoriatzan,

Eskoriatzan azen guardia zibillak. [...] kale barrenien, [han], hortxe egoten zien.

- Kuartela eukein.

- Bai, kuartela. Baiñe, holan, segidu [zienak], mikeletiak.

- Mikeletiak, baiña, bat, bi, edo...?

- Mikeletiak egoten zien 2 edo 3 bakarrik; zertako egoten zien ba, [...] eta ezen be zerik ez euen ta.

- Ta lan haundirik be ez igual.

- Ez ba! Lan haundirik, ze eukiko euen, ba, orduen?

- Kontrabandua zainddu.

- Bai, kontrabandua.

- Ze uniforme eukein? Ze... zelakua?

- Eken fraka gorrixak eta gero azule, azul klarue, hortako zer bait, txaketa edo zer bat, eta gerritik zintturoi bat. Ta txapela zera be halakua euen, azule ta gorrixe izaten zan. Mikeletiak uniforme politta euen.

- Bistosua.

- Bai. Guardia zibillak, berriz, ointxe lakotxie.

- A bai, e?

- Bueno... Bai, ointxe lakotxie.

- Aguazillak be egongo zien, ba?

- Bai, aguazille bat. Aguazil bat. Berak nehikua itten euen. Ba, harek aguazillak itten euen, alhondigako zera, deretxuak edo.

- Kobrau edo?

- Kobrau edo, ba, ardauden zerak. Ostien, kalien errekaun bat badao ein ta... aiuntamientukon bat. Holakon bat itten [...].

- Serenua egoten zan gabetan?

- Ez. Mondrauen-ta egoten zan, Mondraue haundixaua zan-ta ordurako, baiña Aretxabaletan eta Eskoriatzan ez, txikixak zien.

- Kaleko argixak eta ixutu itten zittuen [...], edo...?

- Baeuen argiik?

- A, bueno... Ez euen kalietan argirik, e? Oraiñaokua da hori?

17. Argindarra; lantegiak

- **Erref:** ARE-003/020
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:59:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Argindarra. Lantegiak Aretxabaletan. Kooperatibak.

Transkripzioa

- Serenua egoten zan gabetan?

- Ez. Mondrauen-ta egoten zan, Mondraue haundixaua zan-ta ordurako, baiña Aretxabaletan eta Eskoriatzan ez, txikixak zien.

- Kaleko argixak eta ixutu itten zittuen [...], edo...?

- Baeuen argiik?

- A, bueno... Ez euen kalietan argirik, e? Oraiñaokua da hori?

- [...] urik be ez euen orduen ta. Romalduenien fabrikia euela, Romaldona, Apotzagakuak euen han, ez dakitzu? Apotzagakuak zien haik, zerak,

Romaldonen fabrikia euketak. Apotzagako zela esaten otsen hari etxiari...

- Romalduena?

- Romaldo zan Apotzagakue! Ta gero euker zerien, Aretxabaletan, zapaterixia edo. Ta hak be udan argirik ez, bai? Ta hamen [...] dauken zer bat, ze esaten otsen... tratoria! Tratoria [...] makiñan garixa jotekua ta zien, inddarra, haretxeaz, haxe tratoria eruten euen, zera, inddarra zerketako, fabriketarako itteko. Zera, ura euen hortik Bolibartik edo, zera, bai? Eta ure gastetan zan udan, ta inddarrik ez zan egoten argixe itteko. Eta fabrikarako halakotxe [...] itten euen fabrikako zera be, urik ez euen orduan ta! [...] kalebarrenien fabrika txikiñak. Ta aurretik azen... [...].

- Fabrikak eta problemakin ibiliko zien, ez? Inddarra...

- Inddarra falta izaten zan [puntu], udan sikutia-ta baeuen...

- Zenbat fabrika egozen?

- Aretxabaletan? Aretxabaletan ez dakit, ba, ze fabrika euen orduen; Arruena ta Zerrajerixia be egon zan. Gero hak kiebra in euen ta gero Naparrura edo fan zan. Ta gero halako fabrika txiki batzuk. Ta gero, ba, bakotzak berak [...] ein zittun, fabrikak eta, ba, gerotxuao, geruatxuao etorri zien. Lehendik zeuen hori fabrikiori, Zerrajerixiori, be ez auen, hori gero ifiñi zeuen, Aretxabaletan kiebria zela in euen Zerrajerixiak, ba, batzuk juntau bai, eta eurok ifiñi zittuen tallerrak. Gero kiebria edo in euen, e? Baiña... Orduko fabrikak... zeintzuk... Iturbe ta, in euen kiebria, behintzet zerrau zan; zera be bai, beste bat be bai, ta, ba... halaxe zertu zien. Beste batzuk, ba, jarri ein zien ta... [...] koperatibak jarri zien...

18. Baserritik kalera

- **Erref:** ARE-003/021
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:59:00. **Bukatu:** 01:02:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Kalean bizi zen jendeak lursailak izaten zituen. Baserritik kalera astoarekin joaten ziren. Kaleetan, astoak lagatzeko uztaiak. Aretxabaletako auzoak.

Transkripzioa

- Kaleko etxietan bizi zan jentia baeuen terrenorik ala ez?

- Bai, baeuen terrenuak askok, ganauak be askok euker.

- A bai, e?

- Bai, bai, bai.

- Kale-etxien bertan?

- Kale-etxien, bai.

- Oin, kale-etxiak ittuak edo eukiko zittuein.

- Bai, ittuak euker, ittuak.

- A bai, e?

- Bai. Han plaza parien bizi dana, [Akixuna] edo esaten otsenak be, hak be ganauak asko euker. Askok euker hor ganaue.

- Orduan baserriko bizimodua.

- Baserriko bizimodue, han kale barrenien bizi zienak eta, [...] eta be danak ganauek euki euker. Nik neuk be ganauak bastante ezautu nittun Aretxabaletan, kalien.

- Gero, astuek-eta lotzeko be zerak egongo zien, ez?

- A bai, astuek-eta lotzeko, kalien. Kale [...] txintxak ifiñi ta astuak lotzeko. Orduan ez zan, automobil bat be ez zan pasetan ta.

- Orduan astua aparkau bihar!

- Bai astua, astuakin kalera ta.

- Astuakin ibiltzen zitzen kalera?

- Bai, astuakin.

- Zeozer karriau biher zanien edo holan, edo...?

- Bai, astuakin.

- Ze ipintten xakon astuari kargia erabiltteko?

- Otzarak! Otzarak ifintten jakon, otzarak. Astuen gaiñien kalera ta!

- Oiñez baiño samurtxuao.

- Bai, Ugaztegittik eta be astuakin etorten zien kalera! Lau-bost bat etxe baazen Ugaztegin be, ta.

- Hareik nora eitten die?

- Haik Aretxabaletara.

- Korueta?

- Aretxabaleta. Eskoriatzakuak: Gellao, Apotzaga ta Mendiola ta Bolibar [ei] dia, bestiek Aretxabaletakuak dia.

- Ta haik, Ugaztegi... hareik hemendik fanalditxua dao, ez?

- Bai, fanaldi haundixa [...] hamendik gora, behetik gora.

- Horreik aparte? Aparte edo?

- Bai.

- Han bizi da jentia oin, ala...?

- Oin bizi da ta ez da bizi. Ez dakitzu? Oin etxietan, orduan danak kalera edo... oin atzera danak etxiok arreglau ta domeka ta zapatu faten die. Ta ganauek edo badauke, librien edo ibiltten die ganauek eta...

- Baiña zuk ezautu dozu bertan bizi izan dienak.

- Bizi zienak, bizi zienak. Haik Koruetara, haik eskolara Koruetara etorten zien. Bai Koruetako abadia ta...

19. Auzoetako jaiak

- **Erref:** ARE-003/024
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:05:15. **Bukatu:** 01:07:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriak. San Juanetan, egun biko jaiak. Auzo desberdinetako jaiak. Gonbidautzak.

Transkripzioa

- Eta, orduan, jentia juntau herrixan eingo zan, ezta?

- Bai, elixa onduen juntau ta, ba, kontuek-eta esan han ta...

- Ta erromerixak eta?

- Erromerixak eta, ba, itten zien.

- Nun edo noiz edo...?

- Ba, hamen San Juan, San Juanetan erromerixia, bertako, zera, egun bikue.

- Auzoko jaixak edo?

- Bai, bertako jaixak. Koruetan Santiaguak bertako jaixak; Larriñon San

Kristobal bertako jaixak... Ta, holaxen, danak zelebretan zien, ta gero soiñue egoten zan, ta... Bai. Aretxabaletan Andra Marixak; Mendiolan San Juanak... eta danien. Arientzan Andra Marixak, "8 de setiembre", ta... baiñe auzuen orduen dana zelebretan zan.

- Hemen San Juan, ze egoten zan hemen?

- Hemen San Juan. E?

- Ze itten zan San Juanetan?

- Ba, meza nausixa ta zerak ta... gero, ba, soiñua ekarten euen ta... mutillak, fiestia. Gero, San Juanak eta, ba, basarrixek be leku danien hartzen zien jai. Jai izeten zan ta, ba, jentia, ba, fiestara etorten zan, gaztie.

- Ta kanpotik-eta jentia etorten zan, ala...?

- Ez, ez, konbidauek orduan, parientiek, egoten zien bazkaitten, eukitten zien.

- Famelixa artekuak?

- Famelixa artekuak. Ta, ba, lagunak edo tratetan dauenak, jentiek.

20. Igandeetan jai

- **Erref:** ARE-003/025
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:07:03. **Bukatu:** 01:07:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Igandeetan jai. Gari-ebatea egin nahi izanez gero, baimena eskatu behar abadeari.

Transkripzioa

- Lehenao domekia be jai hartu bihar izaten zan, ezta?

- Bai, orduan jai hartzen zan.

- Lanik ein ezin.

- Ez, ez, ez, ganaujatekuak eta be aurreko egunian ein ta orduen meza nausittara ta... Beste zer bat.

- Lanian ikustia geizki ikusitta euen, gaiñera, ezta, garai hartan?

- Bai, bedarra igarketan eta garixa ebaten ta, abadiari permisua eskaketan jakon garixa ebateko zerien; ha in lekien ta baietz...

-A bai? Ta emuten euen permisua?

- Bai, gari ebaterako, e? Bestela ez.

21. San Juanetako ohitura

- **Erref:** ARE-003/026
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 01:07:50. **Bukatu:** 01:12:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Auzoko mutilek San Juanetan egiten zuten ohitura. Tantaia; sua.

Transkripzioa

- Orduan hemen, San Juanetan, txopua-eta jasoten zan?
- Bai, txopua-ta bai.
- Ta zeintzuk?
- Auzoko mutillek!
- Auzoko mutil danak?
- Bai, bai, auzoko mutillek danak ibiltten zien.
- Kintuak zienak edo?
- Ez, ez, auzokuak.
- Edozein edadetakuak.
- Hoik zeoik, kinttuek kalien kalekuek egoten zien lehenau, ta basarrixen basarritakuek eta, gaiñera, auzuen auzokuek, e?
- A, kintto batzen esan gura dozu?
- Santa Ageda batzen!
- A, Santa Ageda batzen.
- Bai, auzokuek bakarrik. Ta ni ez naz akordetan, baiña bai, akordaten naz neu be, [...] ekarten euen mutillek... zera, txopua, txopua edo tantaixa, [baiña] gabien, ha ekarten euen lapurtuta.
- Bai?
- Bai, ha ixillien edozein lekutatik, edozein lekutatik, bai. Ta txopua edo zera, harrapetan baebitzen, ba, orduan, kendu eitten otsen, ez zutsen isten, baiña, ba, horixe pasatzen zan. Ta gero kendu itten otsen ha txopua edo, jabiek! [Baiñe] gabetan, [esaten dot], nire [...] gabien ibiltten ziela eta zerien, eta harrapau ta, ba, tantaixa ez dakit nundik be ekarri mutillok eta tantaixa ipini. Goixien aziaz ta, azapuntia zeorreaz, tantaixori.
- Ze ifintten zan? Ze ifintten zan puntan?
- Ba, aza on bat edo larrosak edo ipini tantaixan, ta...
- Eta ipiñi be gabian itten abien?
- E?
- Ipiñi be...?
- Jakiñe, ba! Lapurreta itten euen ta! Bai, mutillen hori, kostunbrie, harrapau tantaixe ta, ba, [itxi]. Batzutan, ba, iñor akordau barik, ba, [...] ekarri itten euen ta, baiña beste batzuk akordau itten zien. "Joño! Geuretik ekarri juek horreik! Guretik!", eta, ba, kendu itten otsien orduen be, esaten daue! Oingo mutillak baiño mutil fiñauk edo zerauek.
- Gabian fan ta ekarri ta...
- Aurretik pentsauta eukiko euen nundik, pentsauta eukiko euen: "hantxe jak modukue edo bestie" ta ekarri. Baiña hurrengo goixerako, San Juan goixerako, ba, tantaixa dotore!
- Zutik.
- Bai.
- Ta sua ta be eingo zan.
- A bai, sua be bai, su haundixa eta...
- Kanturik baeuen, San Juan...?
- Bai.
- Zela da? Zela zan hori?
- Ez dakit, "San Juan dala" edo kantetan euen.
- Gurian txikittan kantaitten geben, baiña oin ya total ahaztuta dakot.
- Ta leku danien eitten zien suek, e, orduen.
- Bai. Etxe danetan esan gura dozu?
- Etxe danetan.
- Oin ez?

- Oin, iñok eztau [...], baiña orduen, ba, erramu egunien, ez dakitzu? Eraiñotza bedeinketan zan sortak! Ta haik sortak eukitten zien. Ta gero, osea, [aurreko] egunien, San Juan bezperan, illunkaran, erre itten zien, eta kantau itten zan. Solo eskiñetan, danetan, soluetan edo bedeinkatuak, erreten zittuan, haik. Eta gero San Juan egunian be, sendorra itten zan, orduan. Lorak eta, ba, garixak eta herbasantakin egunduko sorta... lora... zera, eta ha be bedeinkatu eitten zan, bedeinkatu. Eta ha sortie gorde itten zan. Gorde ta, ba, gero, zerien, San Juan hurrengoko zerien, bezperan, erramu zerakin, haik bedeinkaziñuok erre itten zien, ortuen edo soluen edo zerien. [Bedeinkatuak]. Oin horreik gauzok ez die itten! Ez die itten! Baiña orduen danak eitten zien. Orduen horrenbeste malo ta ez zan ibiltten. Bai.

- Horreik garbiketan zittuen?

- Nik ez dakit, baiña orduen behintzet horreik bedeinka... zerok, haik bedeinkatuak, erre itten zien soluetan, baserrixan, danak.

22. Soroen bedeinkapena

- **Erref:** ARE-003/027
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:12:10. **Bukatu:** 01:14:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Abadeak soroak bedeinkatzen zituen udaberrian. Erreguteak. Kanpaiak. Asentzio letaniak.

Transkripzioa

- Eta sorua bedeinkaketara abadia etorten zan?

- Bai, etorten zan, oin ez dao holakorik!

- Urtero-urtero, ezta?

- Urtero-urtero, udabarri ingu... Garizuma inguruan edo hola etorten zien. Garixak eta... bai, maiatzian edo etorten zien. Bai, bai. Garixak hola buruen daozen... bedeinkaketara etorten zan abadiak, bedeinkaziñua botaten. Oin hori ez da itten. Ez dakit nik fedia euen edo zien ala zela zan. Behintzet, gauze txarrik ez.

- Errogatibak eta...

- A bai! Errogatibak, e... San Markos egunekua, orduan bat itten zan errogatibia, bat, goizian bat. Eta jotzen zien kanpaiak hiru ekiñaldi, e? Errogatibarako. [Esaten zan]: "Han errogatibarako kanpaiak!", ta jente dana, baserrittarrak, ba, auzokuak, faten zien errogatibera. Gero, Asentzio Letaiñak esaten zan, Asentzio badakizu zein izaten dan, oin astegun da, baiña orduan eguenian izaten zan, ta orduan be Letaiñak egoten zien. Orduan, hiru egunekuak itten zittuen errogatibak, hiru egunetan kanpaiak jotzen zittun, hiru ekiñaldi, "han errogatibia!" ta hiru egunekua. Asentzion Letaiñak. Oin horreik ez da itten.

- Nik uste neben ura eskaketako itten ziela errogatibak.

- Ez.

- Eurixa eskaketako eta...

- Eurixa eskaketako bai, sikutia euenian be eskaketan zan, ezta? Bai, orduan be errogatibak itten zien ura eskaketako, baiña horreik zien zerak itten zittuenak... orduan parrotxia danetan azen abadiak ta hola itten zien. Asentzio Letaiñak hiru egunetakuak izaten zien, hiru egunian illaran,

goixetan, ta gero mezie. Orduen errogatibak eliza inguruan [...] bueltan egoten zien, ta oin ez da itten. San Markosenak, bat, egun baten orduan, errogatibak.

23. Kanpai klaseak; antzinako ohiturak

- **Erref:** ARE-004/001
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Maiatzaren seitik irailaren 14ra arte kanpaiak 12etan jotzen zituzten. Larunbatetan, errepikak. Guztiz galdu dira ohitura horiek.</p>

Transkripzioa

- Maietzien seixen ekin ta setienbrien hamalaura arte jotzen zittuen sankristauk. Ta oin horrek danok galdute daz. Bai, bai. Auzo danetan jotzen zittuen kanpaiak hamabixetan.

- Ta entzun ingo zien, gaiñera?

- Bai, bai, entzun itten zien! Hemengo sankristauk akordetan naz zela jotzen... Ordu batetan, ordu bat... edo... ez, hamabixetan, dangadie jotzen euenien erlojuek “dan-dan”, hamabixek. Ta gero errepikie jotzen euen. [Bai, fin jotzen euen hak].

- Ta hori izaten zan abixua zeoze...?

- Ba, hamabixak ziela, hamabixek.

- Ta errezon bat itten zan hor?

- Ez.

- A! Ez. Bestela?

- Bestela, ba, [...], errepikak.

- Ta gero atsaldian be bai, ezta?

- Atsaldien ez, zapatuen jotzen zittuen errepikak.

- A! Zapatuetan bakarrik?

- Zapatuetan. Bai. Hurrengoko egunien domekie zala ta... Bai, kanpaiek. Leku danetan jotzen zittuen, e! Oin ez da kanpairik... entzun be ez da eitten! Oin ez... domeketan be... Lau... Lau hillebetetik behin toketan jaku guri hemen auzuen ta, ba... Domekan, gaiñera, errepikarik ez. “Daun, daun” jo ta, ba, aide. Baiña orduen mezetara kanpaiekin ta danakin. Beste zer bat auen orduen; ez dakit, ba, zer, usadixo horixe.

24. Sinesmen kontuak; Garizumako sermoiak

- **Erref:** ARE-004/002
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:04:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

<p>Garizuman, bederatzi eguneko sermoiak. Sermoiaren helburua. Aurreko belaunaldien sinesmen kontuak. Debekuak; bekatuak. Aramaittako kanpaia.</p>

Transkripzioa

- Ta lehen misiniuek edo itten zien?
- Misiniuek?
- Misiniuak edo...
- Bai.
- ... ze zien?
- Zerien, garizuman, misiniuek. Misiniuek esaten [oskuen]. Misiniuek, ba, beratzi eguneko zerak, sermoiek esan gureko dozu. Bai. Sermoiek eta... [maietzien] ta... ba, [txandie], baten Azatzan eingo zien ta hurrengo beste auzo baten edo ta... Fraiden bat-edo ekarri ta beatzi eguneko zerak, misiniuek.
- Ta sermoiek izeten zien?
- Sermoiek izeten zien. Oin horrek ez dao, oin ez daz. Oin ez da entzuten, baiñe gu gaztiak gitzenien ta...
- Ta ze zan, beatzi egunien segido?
- Segidu! Goxien mezie edo zera emuten euen ta gero atsaldien, ba, hiruretan edo [sartu] ta sermoie galanta.
- Zeren gaiñien izeten zien?
- Ez dakit nik zeren gaiñien izeten zien.
- Edozer gauzen gaiñian?
- Bai, ba.
- Kristauak zuzenketako edo...?
- Bai, ba! Zuzenketako! Formalak izeteko edo...
- Oker ibiltten ziñein ala?
- Oker gu ez, baiñe... horrek gure aurretikuek zien. Bai. Gure denporarako jentie zertute euen asko, horrek aurrekuok. Baiña horrek, horrek misiniuok eta horrek bai, artien bai.
- Eliziak beste aginpide bat edo, ezta?
- Bai, ene! Aginpidie? Beste aginpide bat euen.
- Ta bilddurre-ta egoten zan hor orduen sermoietan ze esango edo...?
- Bai! [...] orduen.
- Abadiak?
- Bai. Abadie [orduen] kanpotik ekarten euen. Fraiden bat edo jesuittie edo...
- A! Kanpokue, gaiñera?
- Kanpokue! Ta [...] itten bedeatziur... zeroi itten...
- Ezezaunen bat, orduan...
- Bai. Baltsiuatik eta dantziatik eta gogor eitten euen. Oin, oin, oin dantzia... [...] dantzioi.
- Ta horrek mezetan esaten zittuen?
- E?
- Baltsiuen gorabeheran ta mezetan...?
- Mezetan sermoie itten euen ta gogor itten euen. Orduen? Bai. Dantzien gaiñien ta... Nere [orduko...] dantzien gaiñien zera... aramaittakotan neska-mutillak formal-formal etxera. Baiña...
- Ta aramaittakue zer da?
- E?
- Aramaitakue?
- Aramaittakue, kanpaie jotzen euen, aramaittakue.

- Kanpaia zetarako?
- E?
- Etxeraketako?
- Ba, etxeraketako edo... illunkara danetan joten euen zer guztietan. Aramaittakue esaten jakon.
- Ta ze ordu inguruetan joten eban?
- Ba, illundu... illunkaran, illundute... Kalien be bai, e! Kalien be joten euen, e?
- Retiradie...
- Retiradie, bai, bai, retiradie.

25. Dotrina ongi ikastearen garrantzia

- **Erref:** ARE-004/003
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Dotrina ondo ikasi beharra. Dotrina txikia. Jaunartzea. Dotrina ondo ikasten ez zuenari zigorra.</p>

Transkripzioa

- Dotriñak ikasi biharra ta, ezta, egoten zan?
- Bai, dotriñie, enee...! Ondo ikesten geuen. Lehelengo primera comunión eitteko dotriña txikiñe, ha dana, ta gero dotriña haundixe.
- Zelan...? A! Bi zien?
- Guk dotriñie...
- Dana...
- Buruen.
- Buruen euki biher...
- Ta komunixue itteko lehelengo bata ta gero bestie ikesi biher?
- Bai, bai.
- Dana?
- Oraziño danak eta... Oin ez da oraziño bape ez da ikesten.
- Ta dotriñie ikesten mezetara faten zitzen [beren berez] edo...?
- Mezetara?
- Edo meza ostien edo...?
- Eskolan be dotriñie emon biher izeten zan leziñue. Ta abadiak... illunkaratan abadiana neska-mutikuek eta.
- Zetara, leziñue emutera ala...?
- Leziñue edo... ba, preguntetan euen ta, ba...
- Segimentua itten eban harek?
- Bai.
- Badabil edo...
- Oin dotriña, oin dotriña... Oin...
- Ta ikesi ez ezkeren bat ala...?
- Ba... batzuk izeten zien holako burugogor antzekuek, baiña harei emun eitten otsen abadiak makilliaz. Orduen makilliaz emoten euen, e?
- Gogorrak zien, gero!
- Ta etxien be ezin ezer esan igual, ez?
- Bai, guk ezin... abadiak [palizie emonda be] guk ez gauen esaten etxien

ezer. Isilik. Baiñe pozik faten gitzen illunkaratan, abadie artien falta bazan, han jolasa eitten geuen gaztiek. Holaxe, holaxe lehengo kontuek. Ene, orduko abadiak lan gutxi eukitten euen. Beratzi etxe edo beratzi-hamar gure auzuen bazien ta abadie. Orduen leku danetan eozen abadiak. Enee! Oin akordaute... Ene, ene!

- Auzue zainddu edo...

- Bai, ezebez. Orduen, enee! Ezebez.

- Gaiñera, abadien eruen eitten xakon generua, ezta?

- Bai.

- Obligaziñua generua emuteko abadiak, ezta? Etxe baikotzak. Edo zela zan hori?

- Bai, bai, obligaziñua.

26. Baserritarren eta abadearen arteko harremana

• **Erref:** ARE-004/004

• **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:09:25

• **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Baserritarrek abadearekin zuten harremana. Errezatzearren; bedeinkapenak egitearren garia ematen zitzaion apaizari.

Transkripzioa

- Enee! Oin akordaute... Ene, ene!

- Auzue zainddu edo...

- Bai, ezebez. Orduen, enee! Ezebez.

- Gaiñera, abadien eruen eitten xakon generua, ezta?

- Bai.

- Obligaziñua generua emuteko abadiak, ezta? Etxe baikotzak. Edo zela zan hori?

- Bai, obligaziñua.

- Zertzuk?

- Abadiak eruten jakon, ba, hilleko zera... errezau eitten otsen pater nosterra, ez dakitzu? Bai. Ta orduko anega-erdi emuten otsen, anega-erdi. Ta gero, ba, beste borondatezkue anega bat gari emuten jakon. Ta holaxe. Ta gero gobiernotik be baeuken, ba, abadiak.

- A! Gobiernotik be baeuken, e, zeoze?

- Bai, gobiernotik [euen horrek] abadiak orduen. Abadie ondo bizi zan orduen.

- Garixa bakarrik emuten xakon?

- Garixe ta gero oil... San Juanak zienerako, ba, oillaskuek eta... [...] ba, holaxe emuten jakon.

- Hori borondatia ala...?

- Borondatie.

- A! Borondatez...

- Borondatia, borondatia.

- Hola, obligaziñoik...

- Ez, ez, ez. Baiñe, ba, holaxe, borondatie euen ta.

- Bai, bai. Ez zien gaizki bizi...

- Zenbat eta auzo haundixau zan, ba, abadie hobeto. Ba, gauza gehixao.

- Ta mezia egunero izaten zan ala ez?
 - Mezie egunero.
 - Egunero...
 - Egunero.
 - Ta danok derrior fan bihar?
 - Ez, ez, ez.
 - A ez? A, hori ez?
 - Astegunetan ez gitzen faten; domeketan.
 - Domeketan euen obligaziñua?
 - Domeketan euen obligaziñue. Domeketan faten gitzen. Hemen egoten zan hamarretan betik gazte-denporan ta Larrinon be hamarretan [edo...]. Arientzan egoten zan zortzi t´erdixetan edo. Ta holaxen, ba, kanbixetan. Han entzun batzuk eta, ba, bestiek hamarretako mezetara.
 - Ta domeketan fan ein biher izeten zan?
 - Domekan faten zan, bai, ta dana faten zan hamen jentie orduen. Auzo danetan.

27. Elizan nola esertzen ziren

- **Erref:** ARE-004/005
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:09:25. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Mezatan, gizonak eta emakumeak banatuta. Emakumeak hilarrietan kandelarekin. Erresponsoa. Auzo guztietako baserriek hilarria izaten zuten elizan. Gizon batzuk, koroan. Umeak, aurreko aldean.

Transkripzioa

- Ta domeketan fan ein biher izeten zan?
 - Domekan faten zan, bai, ta dana faten zan hamen jentie orduen. Auzo danetan.
 - Ta mezetan zela jarten zitzen? Gizonezkuek, emakumak... nahasi edo...?
 - Gizonak... ez. Gizonak alde baten ta emakumiek beste aldien. Ta orduen egoten zien hillerrixek ta emakumiek hillerrixetan egoten zien. Bat edo... Kandelakin egoten zan han.
 - Hillerrixe zer da?
 - Hillerrixek esaten... Ba, trapu zuri batekin egoten zien ta bi kandelero ta zera, argixek ixotute ta etxien bakotxekuk hantxe egoten zien. Guk geuk be bageuken, beste etxekuek, beste... danak eukitten euen horixe. Ta gero hillarrixen egoten zan bat ta gero zera... abadie gero etorten zan ta gero errespontsuek itten zien. Ta gero etortzen zan abadie sakristauaz eta [...] eitten zittuen zerok, oraziñuok, ta, ba, [...] txakur haundixe botaten jakon. Bi edo hiru txakur haundi abadie elixako zer... hillarriko danetan egoten zan abadia ta, ba, danai botaten otsen ta holaxe.
 - Ta errespontsua zer zan?
 - Ba, zueik ez dakitzue ta horixe!
 - Ez, ba.
 - Errezue edo...?
 - Errezue. Abadiak eitten eben errezu bat-edo haintxe ta [...] oraziñue

eitten euenien, ba, “tak” botaten [jakon] txakur haundixoi. Atzera beste [batera] ta hiru bat txakur haundi edo bost edo botaten [jakon]. Hori hillarri... edo... auzo danetan, e! Hillerrixek baserrixekuek eukitten zittuen hillarrixek, bakotxak bere zerak, silliaz ta...

- A! Elizako leku bat?

- Bai, noberentzako lekue, hantxe baserrikuentzako hantxe egoten zan. Bai, auzo danetan, e! Baitta Atxabaltan kalien be egoten zan hori!

Baserrittarrak. Baserrixa gehixenak euen ta...

- Kaleko etxiak ez?

- Ez.

- Ta kalekuek...?

- Baserrixa euenak bai, baiñe kaletar... [kalie] euenak ez.

- A! Kaleko familixak ez euen...

- Ez, ez, ez auen eukitten hillarririk.

- Ta han emakumie egoten zan normalien?

- Bai, emakume bat egoten gitzen ta...

- Etxekoandria ala...?

- Noberak gure auena!

- A! Etxeko batenbat...?

- Etxekon bat, batenbat.

- Baiña emakumia...

- Bai, emakumia. Gizonak, ba, komun... edo... koruen edo aldamenien zerien egoten zien.

- Ta umiek?

- Umiek aurrekaldien egoten zien bankuko illaran gaztiekin danak.

- Zainketako moduen, ez?

- Illaran egoten zien.

28. Lehenagoko mezak nolakoak izaten ziren

- **Erref:** ARE-004/006
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:14:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Abadeak meza jendeari bizkarra ematen egiten zuen. Sakristauaren eta monagiloaren betebeharrak. Nolakoak ziren lehenagoko kontuak.

Transkripzioa

- Ta abadien meze ze emuten auen jentiei begira edo jentiei bizkarra emunde?

- Bizkarra emunde orduen. Ta oin... oin ekin otsen horri, behera begira. Bai.

- Altaran bera egoten zan?

- Altaran sakristaue ta bera.

- Ta abadie...

- Sakristaue aldamenien, monagillue...

- Bat da? Sakristaue ta monagillua bat da?

- Ez, sakristaue gizona edo izeten zan.

- Ta monagilluak...

- Monagilluek mutikuek.

- Ta danak egoten zien hormara begire?
- Ba, altarara begire. Abadie egoten zan aurrera begire. Ta oin dao, oin behera begire egoten da. Baiña lehenao, ba, gu atzekaldien, [atzera...].
- Ta sakristauen ta monagilluen lanak zein zian edo ze itten euen?
- Monagilluek? Ba, binajerie eruen ta bestie ta... [santuze] zanien zera jaso ta zerak eitten otsen, monagilluek.
- Zer zanien?
- [Santuze], ez dakitzu? [...] orduen abadiak, ba, erreberentziak eitten zittuenien harek jaso eitten otsen [...], ez dakitzu? Monagillue [...] ta zera jo, txiliñe jo monagilluek itten euen.
- Ta sakristauak?
- Ba! Sankristauak be...
- Harek ezer ez? Egon?
- Egon harek, klaro. Monagillorik ez euenien bera [sankristau...] ta holaxe. Elixeko lanak... Holaxe zien, ba, lehenauko kontuok. Diferente.
- Bai, guztiz diferente, e!
- Oin lehendik hona... oin gaztie-eta diferentzia ona dauke lehenatik hona!
- Asko kanbixau da...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com